

## Asfaltatze lanak herrian / abisu orokorra

Asfaltatze kanpaina orokor bat hasiko dugu, herriko hainbat lekutako zoladurak egokitu eta hobetzeko.

Tamaina handiko kanpaina izango da, eta eragin handia izango du herritarrengan.

Lehenengo lanak otsailaren 10ean, astelehena, hasiko dira. Hain zuzen, Belabi eta Ezkerreneako aparkalekuak egokituko dira: zuloak estaliko dira, euri-urak drainatzeko sistemak hobetuko dira eta inprimazio bat emango da egungo hauts-arazoak konpontzeko. Zatika egingo dira lan horiek, eta, bitartean, aparkalekuen zati bat erabili ahal izango da.

Dena den, lanek iraun bitartean, autoak aparkatzeko beste eremu batzuk ezarriko dira: Etxeberrieta plaza + Galgo paper-fabrika zaharreko aparkalekua.

Zehazki, leku hauetan egingo dira asfaltatze lanak:

1. Arteta kalea + Agustin Leitza kalea
2. La Salle etorbidea
3. Plazaola kaleko biribilgunea + zebra-bideak + Joakin Larreta kaleko aldapak
4. Doktor Huizi kalea + Belkoain kalea + Gernika kalea + Zuberoa kalea
5. Aingurasutegi kalea + Leitzarar kalea + Kaleberriko atzealdea + Leitzarar ibaiko zubia
6. Rectificados Car enpresako aparkalekua + Izturitzaga dorrearen ondoko aparkalekuak

\* Trafiko gehien duten kaleetan, gauetz egingo dira lanak (22:00etatik 06:00etara).

Astero eguneratuko dugu informazioa (prentsa, sareak, abisuak eta bandoak), zein lan eta zein lekutan egingo diren zehazteko. Ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko, elkarlanean ari gara enpresa hornitzailearekin, Zerbitzu Sailarekin eta Udaltzaingoarekin.

Andoain, 2025eko otsailak 5